

2136/2022 EBAZPENA, azaroaren 11koa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Obstetrizia eta Ginekologiako zerbitzu sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

#### AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 9ko 719/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Obstetrizia eta Ginekologiako zerbitzu sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko abuztuaren 2ko EHAA 148 zk. eta 2022ko abuztuaren 8ko BOE 189 zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 31n amaitu zen.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen irailaren 12ko 1726/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Obstetrizia eta Ginekologiako zerbitzu sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I.eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarri, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2022ko azaroaren 11n.

 Bilbo-Basurtuko zuzendari gerentea  
**JESÚS MARÍA LARRANAGA GARITANO**

ZUZENDARI GERENTE  
DIRECTOR GERENTE  
Izpt/Fdo.: Jesús Larranaga Garitano

## I. ERANSKINA

### **BILBO-BASURTUKO ESIKO OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

Onartuen behin betiko zerrenda:

- **María Mercedes Fraca Padilla and.**

Baztertuak:

- **Inor ez**

## II. ERANSKINA

### BILBO BASURTUKO ESIKO OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

#### BALORAZIO BATZORDEA

##### Batzordeburua:

**Titularra: Alejandra Gil Molet and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari medikoa)**

Ordezkoa: David Cantero González jn. (Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari medikoa)

##### Lehenengo kidea

**Titularra: Isabel Camargo Ibarra and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendariorde medikoa)**

Ordezkoa: Ainhoa Epalza Bueno and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendariorde medikoa)

##### Bigarren kidea

**Titularra: Txanton Martínez-Astorquiza Ortiz de Zarate jn. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Obstetria eta Ginekologiako Zerbitziburua)**

Ordezkoa: M<sup>a</sup> Jesús Cancelo Hidalgo (Guadalajarako Unibertsitate-Ospitalea )

##### Hirugarren kidea

**Titularra: José María Aritxeta Iraola jn. (Barrualde-Galdakao ESIko Obstetria eta Ginekologiako Zerbitziburua)**

Ordezkoa: José Ramón Serrano Navarro jn. (Debagoiena ESIko Obstetria eta Ginekologiako Zerbitziburua)

##### Laugarren kidea (IVAPek proposatua)

**Titularra: María Arantzazu Lecuona Artola and. (Donostialdea ESIko Obstetria eta Ginekologiako Zerbitziburua)**

Ordezkoa: Juan Carlos Muruzabal Torquemada (Nafarroako hospitale-guneko Obstetria eta Ginekologiako Zerbitziburua)

##### Idazkaria:

**Titularra: M<sup>a</sup> Begoña Yenes Andrés and. (Bilbo-Basurtu ESIko langileen zuzendariordea)**

Ordezkoa: Maite Yeregui Huarte and. (Barrualde-Galdakao ESIko langileen zuzendariordea)

